

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 85/2018 Foru Agindua, otsailaren 13koa. Onartzea Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta Arabako Ekonomia-  
larien Euskal Elkargoak lankidetzaz hitzarmena izenpetzea, zerga iruzurrari aurre hartzeko**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren helburuetako bat da zerga betebeharrak hobeto bete daitezela, bi hauen ondorio gisa: hobeto aditzen direlako zer gizarte balioa duten kontribuzioek ongizate estatuaren bermatzaile gisa eta gizartean gaitzespen handiagoa dagoelako iruzurrezko jokabideei buruz.

Ekonomia-  
larien Euskal Elkargoa zuzenbide publikoko korporazioa da, nortasun juridiko berezkoa eta jarduteko gaitasun osoa dituena, eta helburu funtsezkotzat dituena ekonomia-  
larien lanbidean aritzea antolatzea, lanbide hori berak bakarrik ordezkatzeko eta elkargoko kide diren profesionalen interesak babestea. Era berean, legeak Planbide elkargoei eta ekonomia-  
larien elkargoei esleitzen dizkien eskumenak baliatzen ditu.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak interesa du Arabako lurraldeko agente batzuen eta besteen artean elkarlan sozialerako mekanismoak ezar daitezen, jardunbide egokien hitzarmen bat sinatuz horretarako, sustatuko duena, alde batetik, zerga iruzurrari aurre egiteko elkarlana, eta, ezarriko duena, bestetik, komunikazio kanal bat Arabako Foru Aldundiaren eta organismo horien artean.

Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta Arabako Ekonomia-  
larien Euskal Elkargoak lankidetzaz hitzarmena izenpetu nahi dute, zerga iruzurrari aurre hartzeko.

Lankidetzaz hitzarmen hau izenpetzeko ahalmena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari dagokio, otsailaren 25eko 23/97 Foru Dekretuak, lankidetzaz hitzarmenak izenpetzeko Diputatuen Kontseiluaren ahalmena diputatu nagusiaren eta foru diputatuen esku uzten duenak, xedatutakoaren ondorioz.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe,

**XEDATZEN DUT**

Onartzea Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta Arabako Ekonomia-  
larien Euskal Elkargoak foru agindu honen eranskin moduan ageri den lankidetzaz hitzarmena izenpetzea, zerga iruzurrari aurre hartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 13a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*

**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**